



13/2024 LEHENDAKARI EBAZPENA

Leitzan, 2024ko maiatzaren 16an

GAIA: ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTU ETA FINKATZEKO EZOHIKO PROZESUARIO DAGOKION LANPOSTUAK MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA. IZENDAPENA.

MAIDER AMANTEGI URDALLETA, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua, honakoa

ADIERAZTEN DU:

2022ko azaroaren 21eko Nafarroako Aldizkari Publikoko 231. aldizkarian argitaratu ziren Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

2024ko maiatzaren 2an LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, izendapen osagarriaren proposamena argitaratu, organo eskudunari igorri eta beharrezko agiriak aurkezteko 10 eguneko epea ireki zen.

Aurkeztutako agiriak kontuan hartuta,

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Oihane Calderón Callejas andrea Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzurako funtzionario izendatzea gizarte hezitzaile lanpostua (Plantilla organikoko 3.postua) betetzeko:

- Izen-abizenak: Oihane Calderón Callejas
- Txanda: Merezimendu-lehiaketa
- Lanpostua: Gizarte hezitzailea
- Plaza zenbakia: 3





- Maila: B
- Araubide juridikoa: F
- Hizkuntzak: Euskara (EGA/C1)
- Lanaldia: %100

BIGARRENA.- Izendatutako izangaiak maiatzaren 30ean jabetu beharko du lanpostuaz. Egun horretan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak galdu egingo ditu deialdia egin duen toki-erakundeko funtzionario izateko eskubide guztiak.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau toki-entitatearen interesdunei jakinaraztea, pertsonalarloari helaraztea, Mankomunitatearen web atarian eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Leitzan, 2024ko maiatzaren 16an

LEHENDAKARIA

Maider Amantegi Urdalleta

IDAZKARIA

Maider Castilla Elarre

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; honen aurka errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.

